

GOGOETATXO BAT KULTURAZ

Koldo Izagirre

1 Kultura eta pandemia

Jendea ezin dantzan erabili batetik bestera. Nola entretenitu masa handi hori? Turismoak eman ohi duena Kulturari emanaraziz. Berehala zabaldu zen konfinamendua “aukera on bat” izan zitekeelakoa musika entzuteko, irakurtzeko... Ezinbestekoa irakurtzea burua fresko edukitzearren. Frantziak telebista kate bat antolatu zuen kontzertu zaharrak ikusi ahal izateko eta kontzertu berriak grabatzeko. Neurri zorrotzez baina, zabaldu zituzten tabernak. Liburudendak ez ordea, buruaren freskotasunarena gezurra zen. Baina irakurketa digitalak jauzi handi bat egin zuela gorantz, ez da dudarik.

2 Kultura eta osasuna

Txalotuak, sarituak, miretsiak... Heroi mailara igo ziren medikuak. Bizia arriskatzen zuten guregatik. Artistak ere arriskatzen du bere zera, beti izan ohi ditu txaloak, sariak eta miresmenak. Bertsolariak ere bai. Pandemia ahuldu delarik, ez dugu hainbeste ikusten “kultura” hitza politikoen ezpainetan. Pandemia aurretik zeuden bezain abandonatuak daude orain kulturaren langileak. Bitxia da, pandemia kulturaz gozatzeko “aukera on bat” zela esaten zuen sistema honek ez daki, ez du onartuko “aukera on bat” izan zuela berak ere pandemia horretatik kultur eta osasun ondorio garratz batzuk ateratzeko. Medikuek zein artistek lan baldintza duinak eskatzen jarraitzen dute, osasuna hondatu gabe lan egin ahal izateko.

3 Kulturak ezkututzen duena

Aspertu arteraino jardun genezake kulturaz, kulturaren definizioaz, kultura zer ote den, zer ez ote den. Salatu nahi duguna erraz ulertzeko, garai batean eskandalagarria zatekeen era honetan definituko dugu: kultura merkantzia bat da. Ikusten? Ez zara eskandalizatu. Alain Brossat-ek 2.008an igarria zuenez, salgarri den guztia da kultura gaur.

Salgarria kultura bihurturik, guztizko askatasunaren itxurako zerbait opa digu politikak. Itxurako, ez benetako, kulturaren guztizko askatasunaren ostean anabasa estaltzaile errentagarria baitago: edertasuna eta zatarkeria berdinak dira, natura eta zaborra berdinak dira, ona eta txarra berdinak dira, egia eta gezurra berdinak dira, euskal eta erdal...

“Euskal” hitzak hor nonbait galdu du inoiz izan zuen “erdal” hitzarengandik bereizteko ahalmena. Egin eginean, “erdal” suntsitu egin da euskaldunen diskurtsoan, gustu txarrekoa da aipatzea, deserosoa zaigu. Euskaldun izatea erdaldun izatea ere badelako, agian? Askatasun linguistikoan bizi garelako itxura.

4 Euskararen lantegia

Euskal kultura ez baizik euskararen kulturaz edo euskaraz sortutako kulturaz jardun ohi dugu geure burua argiago aurkezteko. Euskararen lantegian ari den aurreneko behargina sortzailea da. Merkantzia dela esan dugun hori fabrikatzen du. Bestela esanda, euskararen merkatuak bizirik iraun dezan arduratzen den medikua dugu sortzailea. Nahiago baduzue, herria egarriak hil ez dadin beti zabalik daukan tabernaria. Aldea, prezioak ez dituela berak jarri izan.

5 Euskararen langile profesionala

Markantzia sortzen duen hori lantegian kokatu dugu, ez sormen aretoan edo kultur atelierrean. Hizkuntzaren barruan egiten duelako lana esaten dugu lantegian izerditzen dela, zeren, egiazki, langelan aritzen baita etxeak nahikoa gela baldin badu. Bestela egongelan, edo sormenak antolatu dion zokoan, edo koalokairu batean. Sortzaileak bere buruaren ondoan egiten du obra.

Bakardade horretan, urteak eman ditu eskaintzen ziotena onartuz eta euskararen kultur sistemari eta hezkuntza sistemari men eginez. Orain, 2018an hasi eta 2019an burutu zen

diagnostikoa baietsi da: sistema hau arrakalaz betea dago eta euskararen langile profesionalari bere hizkuntza ez zaio aterpe, subordinatua dagoelako gaztelaniari araudiz, erabaki politikoz eta ohitura bihurtutako abusuz.

6 “Erdal”

Gure hizkuntza gaztelaniari subordinatua egoteak hiru ondorio larri dakartza.

Lehen ondorioa, euskaldunok narraskeriak irentsi beharra erakunde publikoen “euskal” produkzioetan. Gure begi-bihotzetan kolpatzen dute narraskeria horiek, baina euskararen beraren muina ere higatzen dute behin eta berriz: kontzeptu zehatzik, bigarren mailako adierarik, esapide propiorik eta hizkera informalik ere ez daukan hizkuntza bihurtzen dute. Ez zaio horrelakorik gertatzen EAeko beste hizkuntza koofizialari.

Bigarren ondorioa, jakina, narraskeria hori kutsakorra dela, eredu eta irudi faltsuak hedatzen dituela eta, azken finean, erdaraz pentsarazten gaituela euskal hitzez.

Hirugarren ondorioa, ez horren jakina, euskararen langile profesionalak zirkuitu ekonomikotik kanpo uztea hainbat eta hainbat “euskal” emaitzetan. Bazterkeria horrek gure hizkuntzaren langile profesionalen alor guztiak hartzen ditu.